

Sullivan, K; Cleary, M; Sullivan, G (2005). *Bullying en la Enseñanza Secundaria. El acoso escolar: cómo se presenta y cómo afrontarlo.* Bartzelona: CEAC

Sullivanek, “**Nola laguntzen duten irakasleek beldurrarazteko kultura indartzen**” kapituluan, dio irakasleek zuzenean eta esplizituki lagundu dezaketela jazarpena indartzen (jazarpen autoritarioa, nartzisista eta beldur-eragile aktiboa), baina baita zeharka ere, jokaera pasiboaren bidez (interesik ez erakutsiz, permisibo izanez). Egizu taula bat, eta jaso bertan irakasleen jokaera nagusi batzuk, beldurrarazte-kulturaren indargarritzat jo daitezkeenak, bi tipologia nagusi hauek kontuan izanik:

Zuzenean eta esplizituki beldurrarazte-kulturaren lagungarri diren irakasleen jokaerak	Zeharka beldurrarazte-kulturaren lagungarri diren irakasleen jokaera (pasibotasuna, axolagabetasuna)

1. Deskribatu labur Sullivanek “ikus-entzuleen boterea” kapituluaren deskribatzen dituen rol nagusi, jazarpenaren parte hartzen dutenak.
2. Zer lotura dute beldurraraztearen kulturak eta komunikazio gaiztorako estrategiak erabiltzeak?
3. Nor inplikatu behar da jazarpenaren dinamika geldiarazteko? Justifikatu erantzuna Sullivanek deskribatutako rolen dinamikaren ikuspuntutik.
4. Berdina al litzateke jazarpen-dinamika Hezkuntza ez-formaleko testuinguruetan? Zer iruditzen zaizu izan litekeela berdina, eta zer ez?
5. Deskribatu zeuk ezagutu duzun jazarpen-kasu bat.